

# EUSKARA PROBA

<b>1. ABIZENA</b>	<b>NAN zk.</b>
<b>2. ABIZENA</b>	<b>AZTERKETA EGUNA</b>
<b>IZENA</b>	<b>AZTERKETA TOKIA</b>

**Probaren iraupena: 50 min**

**1. Zein da ZUZENA?**

- a) Esnetan bustitako opilak gosaltzen zituen.
- b) Zein hileetan hartuko dituzu oporrak?
- c) Edozein gaiari buruz hitz egin dezakegu.
- d) Lauzpabost lankideekin Londresera joan zen.

**2.- ..... horretan hainbat ..... antolatu dira ingurua ezagutzeko.**

- a) Egonaldi / aitzakia
- b) Eskualde / ekitaldi
- c) Harreman / jatorri
- d) Belaunaldi / baliagarri

**3.- Nagusiak ez zuen ..... bezeroak zorra ordaindu arte.**

- a) alferrik galdu
- b) ateri egin
- c) amore eman
- d) buruz esan

**4.- Zein da ZUZENA?**

- a) Berandu iritsi naiz, lokartu egin naiz eta.
- b) Errepidea konpontzen hasi dute.
- c) Min hartu da atearen kontra jota.
- d) Gaztetan alde egin zen etxetik.

**5.- ..... ordaindu dugu matrikula.**

- a) Ekainaren 11a ondoren
- b) 2019eko irailak 10a arte.
- c) 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen
- d) Uztaiaren 12ara bitartean.

**6.- Eguraldiak lagundu ez ....., jende ugari batu zen.**

- a) bazuen
- b) bazuen ere
- c) zuenik
- d) zuen gisa

**7.- Diru-laguntzak emango dituzte kultura- ..... gehiago egiteko eguneko zentroan.**

- a) gaitasun
- b) albiste
- c) ekintza
- d) irtenbide

**8.- Gazte ..... zegoen txanda iristeko zain.**

- a) makina bat
- b) mordo bat
- c) zeharo
- d) hainbeste

**9.- ..... trena oraintxe pasatu da.**

- a) Hamaikak eta hogeit gutxirako
- b) Hamarrak laurdenak gutxian
- c) Hamabi eta erdietako
- d) Ordu batak eta hamarretatik

**10.- Lana ez da esan ziguten ..... gogorra, laguntzaile asko baitugu.**

- a) bezain
- b) beste
- c) hain
- d) bezala

**11.- Herrialde azpigaratuak egoera hobean ..... natura kontu handiagoz zainduko.....**

- a) balituzte / lirateke
- b) balute / litzateke
- c) balira / liokete
- d) baleude / lukete

**12.- Badakigu egunero kirola ..... hobeto ..... laguntzen duela.**

- a) egiteak / lo egiten
- b) egiten / lo egitea
- c) egiteko / lo egin
- d) egin / lo egiteak

**13.- Zein da ZUZENA?**

- a) Elkar ospatu zituzten festak.
- b) Elkar irten ziren aterpetxetik.
- c) Elkar artean banatu zituzten liburuak.
- d) Elkar ulertzea zaila izaten da.

**14.- Zein da ZUZENA?**

- a) Adeitasunetik eta begirunetik, agur.
- b) Hurren arte.
- c) Zure erantzuna zain, horrenbestez.
- d) Beste gaberik, agur.

**15.- Edozeinek topo egin ..... ezagun batekin gutxien espero duen tokian.**

- a) lezakete
- b) liezaiokete
- c) liteke
- d) lezake

**16.- Egindako ..... berriek hainbat gaixotasuni aurre egiteko bidea zabaldu dute.**

- a) garrantzi
- b) izaera
- c) ikerkuntza
- d) itxaropen

**17.- Zein da ZUZENA?**

- a) Zehaztu gabe dago zenbat jende etorriko denik.
- b) Begira ezazu argia piztuta utzi dugu ala ez.
- c) Kontuz zer hartzen duzula gaixorik zaudenean!
- d) Batek daki epe luzera ondoriorik izango duen.

**18.- Arazoari ..... egiten badiogu, egoera okertu egin liteke.**

- a) atzekoz aurrera
- b) kale
- c) ez-ikusiarrena
- d) gainezka

**19.- Zein da ZUZENA?**

- a) Erlojuaren mende bizi omen gara.
- b) Gaixotasun batzuk airez bitartez zabaltzen dira.
- c) Leihoaz azpiko armairuan daude inprimakiak.
- d) Nor etorriko da zuzendaritik ordeztu?.

**20.- Zein da ZUZENA?**

- a) A zer-nolako luzea delarik!
- b) Bai luzea dela!
- c) Zer luzea denez!
- d) Nolako luzea dela!

**21.- Inguruko herrietara jo behar du askok, hirian etxebizitza erostea ia ezinezkoa .....**

- a) izateagatik.
- b) izanda ere.
- c) izan beharrean.
- d) izan baino gehiago.

**22.- Zein da ZUZENA?**

- a) Zuregandik irten naiz lehenago lanetik.
- b) Horietatik zein duzu atsegin?
- c) Ba al duzu guregan lanik?
- d) Ez dugu gauza askorik erosi haietako.

**23.- Artoa oso produktu ..... da elikagai-industrian, besteak beste, pentsuak egiteko.**

- a) kutsakorra
- b) erabilgarria
- c) diruduna
- d) behartsua

**24.- ....., gaixotasunak ikaragarri ugaritzen dira.**

- a) Birusaren kontrako eraginik ez duten botikak hartzeko
- b) Txertoa adin-talde jakin bateko jendeari jartzeko ez ezik
- c) Gripeaz kezkatzeko aparteko arrazoirik ez egoteaz gain
- d) Udazkenean egoten den tenperatura-aldaketa dela eta

**25.- Ikastaroak antolatzen dira ..... enpresa sortzeko.**

- a) ezer
- b) edonora
- c) nork bere
- d) nork edo nor

**26.- Zientzilariak ez ..... bat klima aldatzen ari ..... ziotenekin 80ko hamarkadan.**

- a) zebiltzan / zuela
- b) zetozen / zela
- c) zeuden / zitzaiela
- d) zeukaten / zietela

**27.- Saileko buruak ..... du une jakinetan beharrezko erabakiak hartzeko.**

- a) esanahia
- b) zelaia
- c) konortea
- d) ahalmena

**28.- ..... itxaroten egon da ..... bere bulegoan har dezan.**

- a) Ordu erdiz / teknikariak
- b) Ordu erditik / teknikariagatik
- c) Ordu erdiko / teknikaria
- d) Ordu erditan / teknikaritik

**29.- Aurrerapen teknologikoak ez du mugarik ezagutzen; izan ere, zerbait berria asmatu eta merkaturatu orduko, zahartuta geratzen da.**

**Zein da esaldi horren PAREKOA?**

- a) Mugak jarri dizkiete aurrerapen teknologikoei, besteak beste, produktu berriak merkaturatzen direnean laster zahartzen direlako.
- b) Aurrerapen teknologiko berririk ez duen produkturik ez da merkatura ateratzen, zeren eta zahartuta dagoela esaten baita.
- c) Aurrerapen teknologiko gutxi ezagutuko dugu, ezin izango dugulako gauza berririk asmatu gure mugen barruan.
- d) Aurrerapen teknologikoak etengabe ari dira agertzen, zerbait berria merkatura atera eta berehala, zahartu egiten da eta.

**30.- Zein da ZUZENA?**

- a) Hizkuntzak ikasteak garrantzi handia dute.
- b) Ez dira arraroak intsektuak jatea kultura batzuetan.
- c) Lantegi berria zabaltzeak irabaziak ekarri dizkio herriari.
- d) Erreklamazio-orriak betetzea gomendatu dizkigute.

**31.- Trenbidearen ..... -lanak bidaia gutxi egiten den garaian egin ohi dira.**

- a) ondasun
- b) baldintza
- c) hobekuntza
- d) helburu

**32.- Geuri dagokigu .....**

- a) eman diguten laguntza eskertzen.
- b) droga kontsumoa aztertuko dugun.
- c) zerbitzua hobetzeko ahaleginak egitea.
- d) gogor lan egiteko betebeharra hartuko duguna.

**33.- Aurrerapauso handia izango litzateke odol-emailerik behar ez izatea; ....., lanean ari dira odol artifiziala sortzeko.**

- a) ordea
- b) hori dela eta
- c) alderantziz
- d) hau da

**34.- Munduko populazioa etengabe hazten ari denez, hurrengo urteetan hainbeste jenderentzako elikagaiak lortzea zaila izango da. Zein da esaldi horren PAREKOA?**

- a) Ez da erraza izango denontzako jatekoa lortzea, etorkizunean munduko biztanle-kopurua gorantz joango da eta.
- b) Munduan dauden elikagaiak etengabe ugartuko direnez, hemendik urte batzuetara populazioa hazi egingo da.
- c) Urte batzuk barru populazioa asko haziko den arren, ez da arazorik egongo janaria eskuratzeko orduan.
- d) Hurrengo urteetan elikagaiak eskuratzeko zaila izango balitz, populazioa hazi egin beharko litzateke arazoa konpontzeko.

- 35.- Har ..... kontuan autoaren segurtasuna, istripua izateko arriskua txikiagoa izan .....**
- a) itzazue / diezazkiozuen
  - b) iezaiozu / ditzazun
  - c) zaitezte / dadin
  - d) ezazu / dezazun
- 36.- ..... euroko aurrekontua egin digute.**
- a) Ehun eta hirurogei eta mila
  - b) Hamar mila eta berrehun eta lau koma bederatz
  - c) Ehun eta mila eta zortzihun bi
  - d) Berrogei mila laurehun eta hamazazpi
- 37.- Zein da ZUZENA?**
- a) Antza denez, makina batek harrapatu zuen langilea.
  - b) Badirudi krisiaren ondorioz kontsumoa jaisteko.
  - c) Beharbada ezingo dituenik oporrak hartu.
  - d) Entzundakoaren arabera, istripu larria gertatu dela.
- 38.- Zein da ZUZENA?**
- a) Bart berandu arte aritzen ginen lanean.
  - b) Iaztik hona asko hazten zen haurra.
  - c) Iaz urte osoan behin joaten nintzen liburutegira.
  - d) Izena emateko azken eguna etzidamu izango da.
- 39.- Gai horretaz arduratu ..... batzordea osatu zuten.**
- a) zela
  - b) zen
  - c) zena
  - d) zenak
- 40.- Baratzek sortzeko programak abian jarri dira hiri batzuetan, ..... goseari aurre egiteko.**
- a) aldiz
  - b) beraz
  - c) batez ere
  - d) ere bai
- 41.- Urte batzuk barru, trenak egiteko ..... material hobeak erabiliko dira.**
- a) askoz ere
  - b) gehienez ere
  - c) zenbat eta
  - d) ahalik eta

**42.- Hizlaria atsegina zen, ondo sentiarazi ..... entzuleak.**

- a) ziren
- b) zitzaien
- c) zien
- d) zituen

**43.- Datorren astean ..... sinatuko dute hitzarmena Udalarekin.**

- a) horretan
- b) berean
- c) bertan
- d) berdinean

**44.- Ikusi ....., harritu egin ....., ez baitzuten espero gu han agertzerik.**

- a) zitzaizkigunean / zituzten
- b) zigutenean / zuten
- c) gintuztenean / ziren
- d) zizkigutenean / zitzaigun

**45.- Bi lagun izan ziren lapurreta egin ondoren ihesari eman .....**

- a) zirenak.
- b) ziotenak.
- c) zutenak.
- d) zitzaienak.



1	A	2	B	3	C	4	A	5	C
6	B	7	C	8	B	9	C	10	A
11	D	12	A	13	D	14	B	15	D
16	C	17	D	18	C	19	A	20	B
21	A	22	B	23	B	24	D	25	C
26	B	27	D	28	A	29	D	30	C
31	C	32	C	33	B	34	A	35	D
36	D	37	A	38	D	39	B	40	C
41	A	42	D	43	C	44	C	45	B

Proba gaitzeko, gutxienez, 34 erantzun zuzen behar dira.